


eguingoa

S i n d i k a l H e z i k e t a

2002 urteko egoera **sozio- ekonomikoaren** **azterketa**

ILAB

Hezkuntza



2002 urteko egoera sozioekonomikoaren azterketa

Erredakzioa: **Joselu CERECEDA**
Rafa IZQUIERDO

Argitaratzailea: **Ipar Hegoa Fundazioa**



EUSKO JAURLARITZA
JUSTIZIA, EKONOMIA, LAN
ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA




GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
ECONOMIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

2003ko apirila



2002 urteko egoera sozioekonomikoaren azterketa

Gizarte Segurantzaren soberakinak: etengabeko fluxu ekonomikoa Estaturantz	5
2002. urtean kontratuen %91,6 aldi baterakoa izan zen	7
2002. urteko lan merkatuaren egoera: Agortze zantzuak enplegu sorkuntzan eta langabeziaren gorakada	9
Eranskinak	13



2002 urteko egoera

sozioekonomikoaren azterketa

Gizarte Segurantzaren sobe- rakinak: etengabeko fluxu ekonomikoa Estaturantz.

Egoera ekonomikoaren aurreko aldiz-
karian Kontzertu Ekonomikoa eta Hi-
tzarmen Ekonomikoaren berriztape-
nak gogor kritikatu genituen, bi paktu
lotsagarri hauetan oinarritzen baita
Madrilek gure herriari inposatzen dion
menpekotasun ekonomikozko harre-
mana. Zerga subiranotasun eza eta gu-
re baliabide ekonomikoen harrapake-
ta dira mendekotasun harreman hauen
ondorioa.

Ez ditugu gehiegi aztertuko Kontzertu
eta Hitzarmenaren ondorioak, baina
gaur egungo egoera juridiko-politiko-
aren ondorioz gertatzen diren beste fi-
niantza baliabideen ihesaldi garrantzi-
tsuak aipatzea beharrezko ikusten du-
gu. Kasu honetan, Gizarte Segurantz-
aren erregimen ekonomikoaren kude-
aketa zentralizatuak dituen ondorioak
aztertzen saiatuko gara.

Estatuak Gizarte Segurantzaren oina-
rrizko legeria eta bere erregimen
ekonomikoari buruzko eskuduntzak
beregain hartu ditu, eta ez du onartu
bere kudeaketa eskuz aldatzea ere,
nahiz eta estatutuko eskuduntza izan.
Ikuspuntu hau patronalak eta CCOO
eta UGT sindikatuek ere defendatzen



dute. Hauke guztiak, konstituzioaren
aldekoak direnez, aurrekontu batasun-
aren printzipioari eustearen alde
daude "espainiar gizarte segurantz-
aren batasuna zalantzan jartzea ekidite-
ko eta espainiar guztien berdintasuna
ziurtatzeko".

Eskema zentralista eta bateratzaile
hau erabiliz Estatua Gizarte Seguran-
tzaren fondoak kudeatzeaz arduratzen
da, hau da, bildutako kuota eta eman-
dako prestazioen artean dagoen supe-
rabitza kudeatzeaz.

2002 urteko egoera sozioekonomikoaren azterketa

GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK ETA FINANTZAKETA HEGOALDEAN.

	Milioika euro			
	1998	1999	2000	2001
PRESTAZIO EKONOMIKOAK	4.049,4	4.234,1	4.608,6	4.871,7
Pentsioak	3.769,8	3.955,3	4.318,1	4.553,9
Aldi Baterako Gaitasunik ezak eta bestelako prestazioak	279,6	278,9	290,5	317,8
GIZ. SEGURANTZAREN SISTEMARI KOTIZAZIOAK	4.451,5	4.664,2	5.113,6	5.546,3
Gizarte Segurantzari Kotizazioak	4.106,8	4.284,4	4.645,1	5.021,6
Lan Istripuen Mutuen Kotizazioak	344,7	379,8	468,5	524,8
DESBIDERAZIOA	402,1	430,1	505,0	674,6
	<i>Metatua 1998 - 20017</i>		2.011,7	

Aurreko koadroan agertzen dira Gizarte Segurantzaren sistemak Hegoaldean lortu dituen saldo positiboak. Bertan garbi ikus daiteke 1998 eta 2001 artean bildutako kuotek 2.012 milioi euro inguruko saldo positibo metatuaosatzen dutela.

Gizarte Segurantzaren sistemaren kotizazio sozialez gain, erakunde honen Diruzaintza Orokorrak INEM, FOGASA eta Lanbide Heziketaren kuotak ere biltzen ditu; baina datu hauek ez ditugu kontuan hartu, administrazio zen-

tralak eta foru administrazioak ez baitizkigute Nafarroari buruzko datuak eman.

Bestalde, badakigu saldo hauek ezin direla superabit garbi moduan ulertu, hemen kontutan hartu ez diren beste gastu batzuk ere badaudelako: kudeaketa administratiboaren gastuak, osasun zerbitzuen kostua, Istripuen Mutuen kostua eta prestazio ez kontributiboan ordainketa,... (azken hauen kudeaketa eta finantzaketa ez da Gizarte Segurantzaren Institutuaren zeregina,

eskualdatutako eskuduntza baita). Hala ere, azterketa honen bidez lortutako emaitzak oso garbiak dira.

Herri honetako biztanleek buruturiko kotizazioen superabita Gizarte Segurantzaren "kutxa bakarrean" gordetzen da; honela fondo horiek hemen-dik kudeatzea galarazten da, eta era berean, euskal gizartearen beharrak betetzeko erabilgarriak izan daitezken baliabideak galtzen dira.

Aurrekontu Egonkortasunaren Lege Orokorra aplikatzeak aurrekontu oreka mantentzera behartzen ditu Autonomia Erkidegoak. Horren ondorioz ezin dituzte Gizarte Segurantzaren soberakinak erabili defizitaren bidez aurrekontu marjina handiagoak lortzeko. Aldiz, Espainiako Estatuak bere aurrekontu defizit txikiak (BPG-ren %0,47 2002. urtean) Gizarte Segurantzaren superabiten bidez estaltzen jarraitzen du.

Amaitzeko, Gizarte Segurantzaren kudeaketa ekonomikoa eskuz aldatzeak "Estatutuaren erabateko betetzea" nahi dutenen helburuak aseko ditu agian, baina argi dago erregimen ekonomikoa eskuz aldatzea ez dela nahikoa Gizarte Babes Publikoko Euskal Sistema sortzeko. Erabateko ahalmen legegilea behar da berezko gizarte babeseko sistema sortu, bere babes ekintza zehaztu, prestazioak lortzeko baldintzak jarri, zenbatekoa erabaki,... egiteko.

Euskal gobernuak, bere aldetik, espainiar Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoa eskuz aldatzeko baino ez du eskatzen; aldi berean, EPSV-en bi-

dez, gizarte aurrikuspeneko sistema pribatuak zabaltzeaz arduratzen da; hauek, Gizarte Segurantzaren pentsioen osagarri moduan sortutako epe luzeko aurrezki ereduak dira.

2002. urtean kontratuen %91,6 aldi baterakoa izan zen.

Iaz 900.000 kontratu inguru erregistratu ziren INEM-ek Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaian banaturik dituen bulegoetan; 2001. urtean sinaturikoak baino %0,6 gehiago. Kontratazioak jasandako geldialdiaz gain aipagarria da 75.562 kontratu mugagabe baino ez zirela sinatu, hau da, aurreko urtean baino %4 gutxiago.

Bestalde, kontratazioan aldi baterakotasuna %1,1 hazi zen 2001. urteko datuekin alderatuz gero eta aldi baterako kontratuak 823.309ko kopuru sinetsgaitza izatera iritsi ziren. Gainera, sinatzerakoan iraupen mugatua zuten aldi baterako kontratuen %75,8k 3 hilabeteko iraupena baino laburragoa izan zuen eta %98,8k ez zuen urte bateko iraupena gainditu.

Hego Euskal Herriko aldi baterako langileen lan baldintza negargarriak dira zifra hotz baina garbi hauen ondorio; 2002. urtean batz best 3 kontratu sinatu zituzten. Lan errotazio altuegiak beharrezko esperientzia eta prestakuntza lortzea ezinezkoa bihurtzen du; 2 ezaugarri hauek dira neurri handi batean gure herriko lan ezbehar kopuru altuaren arduradunak. Estatistikoki frogatuta dago lan harremana aldi

2002 urteko egoera sozioekonomikoaren azterketa



baterakoa denean istripua izateko probabilitatea 2,2 aldiz handiagoa dela.

Hau guztia jakinik ere, patronalak, beste behin, bere neurri gabeko handinahia erakutsi du, 2003. urteko negoziazio kolektiboan malgutasun handiagoa eta soldaten moderazioa eskaturik. Bere helburuak lortzeko, patronalak, kaleratzeen mehatxua eta langabeziaren mamua erabili ditu eta “enpleguak mantentzea arriskuan jartzen dutela” egotzi die sindikatuari. Hau da bere langileen prestakuntzan lanera-ko jasotzen dituen laguntzak baino 3 aldiz gutxiago eta kaleratzeetan baino 2 aldiz gutxiago gastatzen duen patronalaren benetako aurpegia.

Zuzentzen ez den beste enpresa jarduera bat sexu eta adinagatiko bereizketa da, gazte eta emakumeekin kontratazio era prekarioak gehiago era-

biltzen baitira; Hego Euskal Herrian gizonetzko eginako kontratuen %9,3 mugagabeak izan ziren, eta emakumeen kasuan kopuru hau %7,5ekoa izan zen. 25 urte baino gutxiagoko gazteen kontratazioari dagokionez, %5,5 baino ez ziren mugagabeak ez.

Sustapen neurriari lotuta ez dauden mugagabe arruntek (aldi osorakoak, aldi partzialekoak eta aldizkako kontratu finkoak) mugagabeko kontratazioaren %28,6 eta kontratu guztien %2,4 dira. Gainontzeko mugagabeek, Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotan hobari garrantzitsuak izateaz gain, kaleratzeagatik kalte-ordain txikiagoak bermatzen dituztenez lan baldintza txarragoak eskaintzen dituzte.

Era berean aipagarria da kontratu mugagabeen %44,8 aldi baterako en-

bihurtzetik datorrela, iaz kopuru hau %38,7koa zen bitartean. Datu honek garbi uzten du kontratazioan gertatzen den iruzurra: lan iraunkor eta finkoak egiteko aldi baterako kontratuak erabiltzen dira.

Aldi baterako kontratu mota desberdinen artean, *ekoizpenagatikoa eta obra edo zerbitzuagatikoa* dira erabilienak. Bi kontratu mota hauek (lanaldi osokoak eta partzialekoak kontuan hartuta) kontratazio osoaren %38,4 eta %35,9 suposatzen dute hurrenez hurren.

2002. urtean sinaturiko *prestakuntza kontratuak* kontratazio osoaren %0,4 besterik ez dira izan. “Zabor kontratu” honen erabilera urriak garbi erakusten du zailtasun handienak dituzten gizataldeentzat ere ez duela balio lanpostua lortzeko. Baina era berean, lanpostua bide honetatik lortzen duten lagunek bereziki nozitzen dute prekaritatea eta esplotazioa.

Hauek dira Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaian buruturiko lan erreforma desberdinen ondorioz sortutako kontratazio ereduaren datu garrantzitsuenak. Azken aldian agintean egondako gobernu desberdinek gogortasun handiz ezarri dituzte lan merkatuaren malgutasunerako neurriak eta Europar Batzordeak ere bere keza erakutsi du aldi baterakotasun altua dela eta.

Baina kontratu mota lan harremanaren ezaugarrietako bat besterik ez da. Enplegu ezegonkortasunaz gain, laneko prekaritate egoera handitzen duten diskriminazio faktoreak (soldaten eskala bikoitza, azpikontratazioa,...) eta

lan baldintzen elementu desitxuratzailerak (lanaldiaren malgutasuna, lan arriskuak,...) ere badaude.

2002. urteko datu positibo moduan aipagarria da ABLEen erabilera urriagoa. Iaz ABLEek aldi baterako kontratuen %19 kudeatu zuten, eta 2001. urtean, aldiz, %21.

2002. urteko lan merkatuaren egoera: Agortze zantzuak enplegu sorkuntzan eta langabeziaren gorakada.

Aurrez deskribaturiko kontratazio ereduak prekaritatea eta segmentazio handia nagusi diren lan merkatua dakar ondorio moduan. Egoera hau ez da berria, baina ondoren datu batzuk eguneratzen saiatuko gara.

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (EPA-Encuesta de Población Activa) arabera 2002. urtean Hego Euskal Herrian batz bestea 1.123.550 lagunek izan zuten lana eta %79,4 besteren konturako langileak ziren. EPAren metodologia berria 2001. urtean aplikatuz enpleguaren urteko hazkundea %1,2koa baino ez zela izan egiazta dezakegu.

Enpleguaren hazkunde txiki honek 13.675 lanpostu gehiago izatea suposatzen zuen urteko batz besteko moduan eta ekonomiaren dinamismo txikiaren irudi garbia da; ahulezia hau aldi baterako enpleguen suntsiketan ere ikusi zen, hauek baitira egoera okertzen denean ezabatzen diren lehenengoak.

2002. urteko egoera sozioekonomikoaren azterketa

Langabeziaren definizio berriaren arabera, 2002. urtean batz bestea 106.350 pertsona egon ziren lanik gabe; hau da, aurreko urtean baino 800 gehiago. Datu hau zuhurtziaz hartu behar da kontuan, esanahi gutxiko zifra (estatistikoki hitz eginez) izateaz gain inkesta hauek lagin akatsak ere eduki baititzaizkete. Hala eta guztiz ere, lan merkatuaren agortze zantzuak agerikoak dira, bai enplegu sorkuntzaren geldialdiagatik eta baita langabeziaren gorakadagatik ere. Iazko bigarren sei hilabeteetan INEMen erregistratutako langabeziaren hazkundeak ere ondorio berdineragaramatza.

Urteko batz besteko langabezia tasa %8,6koa izan zen, baina desberdintasun nabariak egon ziren sexu eta adinaren arabera. Langabeziak emakumezkoen biztanleria aktiboaren %13,3an izan zuen eragina 2001. urtean bezala; gizonezkoen langabezia tasa, aldiz, %5,4koa izan zen. Gazteriak bizi duen egoera are eta gogorragoa da, %20,3ko langabezia tasa baitu,

2001. urteko batz bestekoa baino puntu bat altuagoa.

Laugarren hiruhilabeteko datuak kontuan hartuz gero esan dezakegu urte amaieran Hego Euskal Herriko langabezia tasa %8,5koa zela, urtebete lehenagoko berbera. Euro guneko abenduko langabezia tasak ere %8,5ari eutsi zion eta 15 estatu Europar Batasundeen batz bestekoa %7,8koa izan zen.

Sexuaren araberako azterketaren baren eta iaz sortutako lanpostuen urteko batz bestekoa erreferentziatzat hartuta, aipagarria da enplegu berrien %88 emakumeentzat izatea eta gai-nontzeko %12 gizonezkoentzat. Hala ere, batz bestea, 2001. urtean baino emakume gehiago egon ziren langabezian, emakume berri ugari hasi baitziren lan bila.

Baina hasierako erreferentzia moduan 2001. urteko azken hiruhilabeteko okupazio maila hartzen badugu, 2002. urte amaieran 15.900 pertsona gehiagok zuten lana; emakumeek 21.700 lanpostu gehiago zituzten eta gizonezkoek, aldiz, 5.800 gutxiago.

Hala eta guztiz ere, lanean diharduten emakumeak langile guztien %40 baino ez dira oraindik eta langabezian dagoen gizatalde handiena izaten irauten dute, langabetuen %62 emakumeak baitira. Gainera, langabezian dauden emakumeen %51k urtebete baino gehiago darama lan bila eta gizonezkoen kasuan kopuru hau %33koa da. Datu honek garbi erakusten du emakumeek zailtasun handiagoak dituztela lanpostua lortzeko.



Baina gazteria da enplegu suntsiketak gehien astintzen duen gizataldea. Ekonomiaren etengabeko hozteak belau-naldi gazteenak lan merkatutik kanpo-ratzen ditu; 2002. urtean lana zuten 25 urte baino gutxiagoko gazteen batz bestekoa %8,3ra jaitsi zen, hau da, iaz 8.700 gazte inguruk galdu zuten beren lanpostua.

Aldi baterakotasunaren azterketa ere garrantzitsua da lan merkatuan dago-en errotazio maila ezagutzeko, langi-leriaren interesetan zelako ondorioak dituen eta batzuetan langileria zatika-tzeko zelako eragina duen ere ulertze-ko. EPAREN arabera 2002. urtean aldi baterakotasunaren batz bestekoa %29koa izan zen Hego Euskal Herriko soldatapeko biztanlegoan, aurreko ur-tean aldi baterakotasun tasa %29,9koa zen bitartean.


Nahiz eta tasa hau zerbait gutxitu, oraindik Europar Batasuneko %13ko mailaren oso gainetik dago. Gainera, desazelerazio ekonomikoaren ondorioz gertatu den aldi baterako enple-guaren suntsiketak ere bilakaera ho-netan lagundu du. Baina guzti honetaz gain, INE eta EUSTATEk kaleratutako emaitzetan agertzen diren desadosta-sun estatistikoak ere kontuan hartu be-har dira.

Ondorengo taulan ikus daitekeen mo-duan, EUSTATEk burututako inkesta-ren (PRA) arabera kontratu mugaga-bea duen soldatapeko biztanlegoaren portzentajea gutxitu egin da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Datu hauek ez datoz bat EPAREN inkestak erakusten duen aldi baterakotasunaren gutxitze-arekin.

<i>Urteko batz bestekoa</i>	Nafarroa*	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2001	%74,4	%74,2	%68,2	%66,3
2002	%73,7	%70,3	%65,2	%65,6
* Iturria: EPA Nafarroarako eta PRA gainontzeko lurraldeetarako.				

Desberdintasun estatistikoak mo-mentuz alde batera utzita, EPAREN abantaila nagusia zein den aipatzea komeni da: Metodologia bakarra erabilita Hego Euskal Herri osoko egoera soziolaborala aztertu daite-ke. Beraz, EPAREN emaitzetara itzuli-

rik, aipagarria da aldi baterakotasu-nak gazterian eta emakumeetan duen larritasuna, %67,9 eta %36,7ko tasekin hurrenez hurren. Gizonezko-en kasuan aldi baterakotasunaren ur-teko batz bestekoa %23,7koa izan zen.



2002 urteko egoera sozioekonomikoaren azterketa

Eranskinak

HEGO EUSKAL HERRIKO LAN MERKATUA

Urteko batz bestekoak - EPA

SEXU BIOK	2002	2001	desb.	SOLDATAPEKOAK
LANDUNAK	1.123.550	1.109.875	13.675	Guztira 892.550
LANGABETUAK	106.350	105.550	800	Mugagabeak 633.500
AKTIBOAK	1.229.900	1.215.425	14.475	Aldi baterakoak 259.050
LANGABEZI TASA	8,6	8,7	0,0	LANGABEZIAN
ENPLEGU TASA	50,1	49,6	0,5	Urtebete + 47.500
JARDUERA TASA	54,8	54,3	0,5	2 urte + 31.325
ALDIKOTASUN TASA	29,0	29,9	-0,9	
16 urtetik gorako biztanleria	2.243.400	2.238.475	4.925	

EMAKUMEAK	2002	2001	DIF.	SOLDATAPEKOAK
LANDUNAK	437.225	425.200	12.025	Guztira 364.300
LANGABETUAK	66.975	65.275	1.700	Mugagabeak 230.725
AKTIBOAK	504.200	490.475	13.725	Aldi baterakoak 133.575
LANGABEZI TASA	13,3	13,3	0,0	LANGABEZIAN
ENPLEGU TASA	38,0	37,0	0,9	Urtebete + 33.675
JARDUERA TASA	43,8	42,7	1,1	2 urte + 23.225
ALDIKOTASUN TASA	36,7	37,0	-0,4	
16 urtetik gorako emakumeak	1.151.275	1.147.950	3.325	

GIZONAK	2002	2001	DIF.	SOLDATAPEKOAK
LANDUNAK	686.325	684.675	1.650	Guztira 528.225
LANGABETUAK	39.425	40.300	-875	Mugagabeak 402.800
AKTIBOAK	725.750	724.975	775	Aldi baterakoak 125.425
LANGABEZI TASA	5,4	5,6	-0,1	LANGABEZIAN
ENPLEGU TASA	62,8	62,8	0,0	Urtebete + 13.900
JARDUERA TASA	66,5	66,5	0,0	2 urte + 8.100
ALDIKOTASUN TASA	23,7	25,2	-1,4	
16 urtetik gorako gizonak	1.092.100	1.090.325	1.775	

GAZTEAK (< 25 urte)	2002	2001	DIF.	SOLDATAPEKOAK
LANDUNAK	95.875	104.575	-8.700	Guztira 87.900
LANGABETUAK	24.450	25.100	-650	Mugagabeak 28.225
AKTIBOAK	120.325	129.675	-9.350	Aldi baterakoak 59.675
LANGABEZI TASA	20,3	19,4	1,0	LANGABEZIAN
ENPLEGU TASA	33,3	34,5	-1,2	Urtebete + 6.375
JARDUERA TASA	41,8	42,8	-1,0	2 urte + 3.700
ALDIKOTASUN TASA	67,9	71,3	-3,4	
16 urtetik 25era	287.700	303.075	-15.375	

2002. URTEAN BAJA ERAGIN DUTEN LAN ISTRIPUAK, HEGO EUSKAL HERRIAN

SEKTOREA	ARINAK	LARRIAK	HERIOTZAK	GUZTIRA
NEKAZARITZA	1.395	47	13	1.455
INDUSTRIA	26.642	253	26	26.921
ERAIKUNTZA	14.008	155	23	14.186
ZERBITZUAK	22.000	212	33	22.245
LANEAN	64.045	667	95	64.807
<i>IN ITINERE</i>	5.772	118	42	5.932
LAN ISTRIPUEN GUZTIRA	69.817	785	137	70.739

Iturria: Osalan, INSL.

BAJA ERAGIN DUTEN LAN ISTRUPUAK, 1988.URTETIK

1988 - 2002	LANEAN GERTATUTAKO ISTRIPUAK			
	ARINAK	LARRIAK	HERIOTZAK	GUZTIRA
NAFARROA	168.869	2.629	331	171.829
ARABA	104.148	1.673	174	105.995
GIPUZKOA	196.645	3.676	461	200.782
BIZKAIA	322.394	3.999	636	327.029
HEGOALDE	792.056	11.977	1.602	805.635

1988 - 2002	ISTRIPUAK <i>IN ITINERE</i>			
	ARINAK	LARRIAK	HERIOTZAK	GUZTIRA
NAFARROA	9.004	414	127	9.545
ARABA	6.879	259	63	7.201
GIPUZKOA	14.004	650	171	14.825
BIZKAIA	23.462	789	192	24.443
HEGOALDE	53.349	2.112	553	56.014

1988 - 2002	BAJA ERAGIN DUTEN LAN ISTRIPUEN GUZTIRA			
	ARINAK	LARRIAK	HERIOTZAK	GUZTIRA
NAFARROA	177.873	3.043	458	181.374
ARABA	111.027	1.932	237	113.196
GIPUZKOA	210.649	4.326	632	215.607
BIZKAIA	345.856	4.788	828	351.472
HEGOALDE	845.405	14.089	2.155	861.649

Iturria: Osalan, INSL, Lan Ministerioa.

INEMen ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK / HEGO EUSKAL HERRIA, 2002. URTEAN

KONTRATU MOTA	Guztira	Leh. sekt.	Industr.	Eraikun.	Zerbitz.	Gizonak	Emakum	Gazteak
MUGAGABE ARRUNTA (1)	21.622	1.174	4.628	1.575	14.245	15.177	6.445	3.590
MINUSBALIATUAK	432	7	86	42	297	313	119	34
SUSTAPENEOAK	19.622	209	3.625	1.071	14.717	6.227	13.395	4.079
MUGAGABE BIHURTUTAKOAK	33.886	273	10.440	2.829	20.344	20.925	12.961	8.548
MUGAGABE GUZTIAK	75.562	1.663	18.779	5.517	49.603	42.642	32.920	16.251
OBRA EDO ZERBITZUA	322.961	5.994	41.820	69.183	205.964	195.766	127.195	102.945
EKOIZPENETAKOAK	345.234	2.871	54.853	12.768	274.742	172.234	173.000	132.852
BITARTEKOAK	128.616	608	7.838	700	119.470	31.992	96.624	32.461
MINUSBALIATUAK	1.019	2	343	57	617	699	320	143
LANEAN TXERTATZEKOAK	1.881	64	0	48	1.769	973	908	291
ORDEZKAPENA (64 URTE)	191	0	57	12	122	124	67	34
ERRELEBU-KONTRATUAK	2.102	1	1.460	58	583	1.673	429	525
ORDEZKAPEN PARTZIALA	2.272	2	1.610	70	590	2.047	225	0
PRAKTIKAK	9.333	34	2.848	859	5.592	5.511	3.822	6.205
PRESTAKUNTZAKOAK	3.919	7	664	950	2.298	2.502	1.417	3.363
GAINONTZEKOAK	5.781	288	529	267	4.697	2.786	2.995	1.193
ALDI BATERAKO GUZTIAK	823.309	9.871	112.022	84.972	616.444	416.307	407.002	280.012
KONTRATU GUZTIAK	898.871	11.534	130.801	90.489	666.047	458.949	439.922	296.263

Iturria: INEM.

(1) Sustapen neurriei lotuta ez dauden aldi osorakoak, aldi partzialekoak eta aldizkako kontratu finkoak barne.

(*) Aldi baterako mota bakoitzak, berari dagozkion aldi partzialeko kontratuak kontuan hartzen ditu.

INEMen ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK (ehuneko bertikalak) HEGO EUSKAL HERRIA -2002

KONTRATU MOTA	Guztira	Leh. sekt.	Industr.	Eraikun.	Zerbitz.	Gizonak	Emakum	Gazteak
MUGAGABE ARRUNTA (1)	%2,4	%10,2	%3,5	%1,7	%2,1	%3,3	%1,5	%1,2
MINUSBALIATUAK	%0,0	%0,1	%0,1	%0,0	%0,0	%0,1	%0,0	%0,0
SUSTAPENEOAK	%2,2	%1,8	%2,8	%1,2	%2,2	%1,4	%3,0	%1,4
MUGAGABE BIHURTUTAKOAK	%3,8	%2,4	%8,0	%3,1	%3,1	%4,6	%2,9	%2,9
MUGAGABE GUZTIAK	%8,4	%14,4	%14,4	%6,1	%7,4	%9,3	%7,5	%5,5
OBRA EDO ZERBITZUA	535,9	%52,0	%32,0	%76,5	%30,9	%42,7	%28,9	%34,7
EKOIZPENETAKOAK	%38,4	%24,9	%41,9	%14,1	%41,2	%37,5	%39,3	%44,8
BITARTEKOAK	%14,3	%5,3	%6,0	%0,8	%17,9	%7,0	%22,0	%11,0
MINUSBALIATUAK	%0,1	%0,0	%0,3	%0,1	%0,1	%0,2	%0,1	%0,0
LANEAN TXERTATZEKOAK	%0,2	%0,6	%0,0	%0,1	%0,3	%0,2	%0,2	%0,1
ORDEZKAPENA (64 URTE)	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0
ERRELEBU-KONTRATUAK	%0,2	%0,0	%1,1	%0,1	%0,1	%0,4	%0,1	%0,2
ORDEZKAPEN PARTZIALA	%0,3	%0,0	%1,2	%0,1	%0,1	%0,4	%0,1	%0,0
PRAKTIKAK	%1,0	%0,3	%2,2	%0,9	%0,8	%1,2	%0,9	%2,1
PRESTAKUNTZAKOAK	%0,4	%0,1	%0,5	%1,0	%0,3	%0,5	%0,3	%1,1
GAINONTZEKOAK	%0,6	%2,5	%0,4	%0,3	%0,7	%0,6	%0,7	%0,4
ALDI BATERAKO GUZTIAK	%91,6	%85,6	%85,6	%93,9	%92,6	%90,7	%92,5	%94,5
KONTRATU GUZTIAK	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100

Iturria: INEM.

(1) Sustapen neurriei lotuta ez dauden aldi osorakoak, aldi partzialekoak eta aldizkako kontratu finkoak barne.

(*) Aldi baterako mota bakoitzak, berari dagozkion aldi partzialeko kontratuak kontuan hartzen ditu.

INEMen ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK (ehuneko horizontalak) HEGO EUSKAL HERRIA -2002

KONTRATU MOTA	Guztira	Leh. sekt.	Industr.	Eraikun.	Zerbitz.	Gizonak	Emakum	Gazteak
MUGAGABE ARRUNTA (1)	%100	%5,4	%21,4	%7,3	%65,9	%70,2	%29,8	%16,6
MINUSBALIATUAK	%100	%1,6	%19,9	%9,7	%68,8	%72,5	%27,5	%7,9
SUSTAPENekoAK	%100	%1,1	%18,5	%5,5	%75,0	%31,7	%68,3	%20,8
MUGAGABE BIHURTUTAKOAK	%100	%0,8	%30,8	%8,3	%60,0	%61,8	%38,2	%25,2
MUGAGABE GUZTIAK	%100	%2,2	%24,9	%7,3	%65,6	%56,4	%43,6	%21,5
OBRA EDO ZERBITZUA	%100	%1,9	%12,9	%21,4	%63,8	%60,6	%39,4	%31,9
EKOIZPENETAKOAK	%100	%0,8	%15,9	%3,7	%79,6	%49,9	%50,1	%38,
BITARTEKOAK	%100	%0,5	%6,1	%0,5	%92,9	%24,9	%75,1	%25,2
MINUSBALIATUAK	%100	%0,2	%33,7	%5,6	%60,5	%68,6	%31,4	%14,0
LANEAN TXERTATZEKOAK	%100	%3,4	%0,0	%2,6	%94,0	%51,7	%48,3	%15,5
ORDEZKAPENA (64 URTE)	%100	%0,0	%29,8	%6,3	%63,9	%64,9	%35,1	%17,8
ERRELEBU-KONTRATUAK	%100	%0,0	%69,5	%2,8	%27,7	%79,6	%20,4	%25,0
ORDEZKAPEN PARTZIALA	%100	%0,1	%70,9	%3,1	%26,0	%90,1	%9,9	%0,0
PRAKTIKAK	%100	%0,4	%30,5	%9,2	%59,9	%59,0	%41,0	%66,5
PRESTAKUNTZAKOAK	%100	%0,2	%16,9	%24,2	%58,6	%63,8	%36,2	%85,8
GAINONTZEKOAK	%100	%5,0	%9,2	%4,6	%81,2	%48,2	%51,8	%20,6
ALDI BATERAKO GUZTIAK	%100	%1,2	%13,6	%10,3	%74,9	%50,6	%49,4	%34,0
KONTRATU GUZTIAK	%100	%1,3	%14,6	%10,1	%74,1	%51,1	%48,9	%33,0

Iturria: INEM.

(1) Sustapen neurriei lotuta ez dauden aldi osorakoak, aldi partzialekoak eta aldizkako kontratu finkoak barne.

(*) Aldi baterako mota bakoitzak, berari dagozkion aldi partzialeko kontratuak kontuan hartzen ditu.